



Isabel
Lertxundi
Barañano

1951-1984

BIDeGILEAK

Egilea:

Marisa Barrena



ISABEL LERTXUNDI BARAÑANO

(1951-1984)

Euskaltzale berritzailea

Isabel euskaltzalea eta berritzailea izan zen. Konpromisoari beldurrik ez zion emakumea eta lagunen laguna. Bizitza labur baina oparoa Isabelena. Gorputz txikiaren barruan bihotz handia eta buru aparta zituen. Ez zen makala izan, ez.

Nekez bete daiteke hark hezkuntza esparruan eta bere ingurukoen bihotzetan utzitako hutsunea. Zoritzarreko istripu batek eraman zigun, berak hainbeste maite zuen bere senar Jesus Mari Aldairekin batera. 33 urte baino ez zituen, ordurako ordea, bere balioa eta gaitasuna erakutsiak zituen.

Zer ez ote zuen egingo gure Isabelek beste horrenbeste urte bizitzeko zoria izan balu! Inoiz ez dugu jakingo. Hala ere, bere bizitza laburraren berri ahalik eta zintzoen ematen saiatuko gara. Isabel joan zitzaigunetik urte asko igaro diren arren, hurbil baitugu lankide, lagun, edota, adiskide izateko aukera izan genuen gizon eta emakumeok.

LEHEN URRATSAK

Isabel Lertxundi Barañano Bilbon jaio zen 1951ko martxoaren 8an. Roberto de Lerchundi eta Mari Carmen Barañanoren



Isabelek 2 hilabete zitueneko argazkia bere guraso eta neba-arrebeekin

bosgarren fruitua izan zen. Lehenengoa, Mari Carmen, jaioberritan joan zitzaien, ondoren Maria Angeles, Roberto, Jose Ramón eta Isabel heldu ziren. Haien ostean berriz, Iñigo, Javier eta Alfredo etorriko ziren. 7 neba-arrebeek osatzen zuten beraz Lerchundi-Barañanotarren baratza.

Isabelek ume sasoiko oroitzapen ederak zituen, askotan hitz egiten zuen horretaz. Bere etxeko armonia, alaitasuna eta bere ahizpa eta nebeekin izandako jolas giroa oso gogoan izaten zituen eta behin baino gehiagotan aipatzen zituen.



Isabel 7 hilabete zituenean

Billboko Rodriguez Arias kaleko etxebizitza zabal batean hasi zen. Tokia behar, hainbeste umerentzat! Txikitan Moyua plazan jolasten omen ziren maiz, etxetik hurbil.

IKASLE ARGIA

Isabelek hiru edo lau urte zituenean Vera Cruz ikastetxeko Kindergarten haurtzaindegira joan zen bere neba Roberto-



Isabel amaren altzoan bere guraso eta neba-arrebekin urte eta erdi zituenean



Isabel, ahizpa Maria Angeles eta neba Roberto eta Jose Ramonen aurrean

rekin batera. Robertok, umetatik gehi-
go, neska bizkorra zela gogoratzen du.
Beti pozik, beti aktibo, beti mugimen-
duan.

Ondoren ere Vera Cruzen jarraitu zuen
eta hango ikasle izan zen batxiler ikas-
ketak amaitu arte. Jatun eskasa baina
ikasle bizkorra izan zela txiki-txikitatik
esaten du bere ama Carmenek. Laster
nabarmendu zen ikastetxean gai ezber-
dinak ikasteko zein edukiak barneratze-
ko bere gaitasunagatik. Batxilerra amai-
tu ondoren Deustuko Unibertsitatean
lizentziatu zen filosofia eta letretan (His-
torian).

Irakurtzea eta idaztea gustuko zituen ume-
-umetatik. Gaztetxotan Otxandioko poe-
ma lehiaketa batera aurkeztu zen baina,
bera baino nagusiago zen nebak irabazi
zuen saria eta berak aipamenarekin kon-
formatu behar izan zuen. Halere, Isabel
neska saiatua zenez gero, idazten jarrai-
tu zuen eta 1968an, 17 urte zituela, ipuin
lehiaketa bat irabazi zuen eta bidaia bat

egiteko aukera ere izan zuen. Bidaia Es-
kandinaviara izan zen.

Isabelek ingelesa ere ikasi zuen. Hainbat
uda pasatu zituen Ingalaterran eta Esko-
zian eta Ameriketara ere joan zen, berta-
ko Peggy izeneko neskekin truke ba-
tean ere parte hartu zuen. Bere aitaren
albumean egunkariko ebakin hau aurkitu
dugu.



VISITOR FROM SPAIN is Isabel Lerchundi, right, who is a guest of Peggy Robinson, l., daughter of Dr. and Mrs. Tyron Robinson. Peggy, Bellaire AFS student, lived in Spain last summer with Isa's family in Bilbao. The girls met in New York last week and toured Washington, D.C. before coming to Bellaire. Isa wants to visit the AstroDome, HemisFair and see a football game during the month she is here.

Isabel eta Peggy lagun amerikarrekin



Isabel eta Jesus Mari «Aldai»

ISABELEN FAMILIA

Ume denboran ezagutu zuen bere bihotzaren ardatza izango zen gizona eta, nerabezaroan maitemindu. 1977an ezkondu ziren Isabel eta Jesus Mari, Iurretako elizan. Orduan elkarri emandako baietza benetakoa izan zela esan daiteke. Isabeli maitasuna zerion Jesus Mariri buruz hitz egiten zuenean.

Aldai, berak esaten zuen bezala, bere osagarria zen. Bihotz handiko gizona, apala,



Isabel bere seme-alabekin



Isabel bere familiarekin, txikitan jolasten zuen Moyua plazan

ausarta, alaia, eta lasaia. Gainera sukaldari bikaina. Jesus Mariri, behin baino gehiagotan entzun genion bera ere feminista zela. Kontua da Jesus Marik begi onez ikusten zituela beti Isabelen ahaleginak eta lorpenak, eta uneoro haren makulua izaten saiatzen zela.

Isabel konpromisoko emakumea izan arren, eta hara-hona beti lanpeturik ibili arren, ez zegoen amatasunari uko egiteko. 1978ko abuztuaren 24an, 27 urte zituen jaio zen bere lehen semea, Iker. Mutiko ilehoria, Lertxunditarren antzerakoa. Handik 2 urtera, abuztuaren 29an biga-

rrenez erditu zen Isabel. Orduko hartan Jone izeneko neska beltzaran polita izan zuen. Jone aldaitarra zela esaten zuen irribarrez Isabelek.

Behin baino gehiagotan entzun genion honako hau: «Diruduna banintz, seme-alaba piloa izango nituzke. Seme-alabek ematen duten poztasuna eta atsegina



Isabel eta Jesus Mari

beste gauza gutxik ematen baitute». Zorionsua zen bere familiarekin. Laukote zoragarria osatzen zuten. Lastima hain denbora gutxian disfrutatu izana.

ZALETASUNAK

Isabel irakurle porrokatua izan zen. Irakurtzea zen bere zaletasunik handienetakoa. Tarte bat zuen guztietan irakurtzen zuen. Juan Aldai bere koinatuak gogoratzen du Isabel edozein baztertxotan egoten zela irakurtzen, liburu



Isabel eta Jesus Mari euren seme Iker eta alaba Jonerekin Otxandioko udaletxe aurrean



Isabel, oportetan erabiltzen zuen pamelarekin, Tanger-eko azokan



Isabel eta bere neba Roberto gamelu gainean Marokon

bat zein bi egoten zirela haren mesanotxean martxan; saiakerak zein eleberririk. Euskaraz, gazteleraz zein ingelesez irakurtzen zuen. «Euskaldun berrientzat ez dago irakurtzea bezalako edaberririk» esaten zuen Isabelek. Lexikoa ikasteko biderik onena ere irakurtzea zela aipatzen zuen. Aitarengandik jaso zuen liburuetarako zaletasuna. Aitak Graficas Lerchundi enpresa izan zuen luzaroan eta haren eskutik hainbat liburu eta aldizkari pasatu ziren.


Mendia eta natura biziki maite zituen. Hantxe aurkitzen zuela bakea esaten zuen. Hantxe gogoeta eta hausnarketa egiteko aukera ere. Gainera etxeokoen eta lagunekin mendi-irteerak egiteak adiskidetasuna lantzeko ere parada ezin hobea eskaintzen ziola zioen. Bidaiak egitea ere oso gustuko zuen. Bere antolatze senak gainera bidaiak antolatzea errazten zion. Mapak irakurtzen ere trebetasun handia zuenez laster ekiten zion nondik norakoak eratzeari. Horrez gain kultur aniztasuna defendatzen zuen aldetik, bidaiak egiteak kulturartekotasuna lantzeko ematen zuen erraztasunari onura ateratzen zion.



Isabel Otxandioko lagun eta senitartekoekin

Isabelen zaletasunen artean Otxandio ere bazegoen. Bere senarra eta haren familia hangoa izanik gustura joaten zen asteburuetan Bizkaiko bazter eder hartara. Benita bere amaginarreba, koinatu Juanito, eta gainontzeko lagun, adiskide, eta senitartekoak, hantxe zituen.

Bere besoetako Manolo ere hantxe bizi zen, Otxandion. Manolo jaio zenean, kanpotarra eta pobrea izanik ez zeukan antza amabitxi-gairik. Nor hoberik Isabel baino? Ezetz esaten ez zekien emakumea zenez gero, laster bihurtu zen amabitxi edo amaponteko.



Euskara bultzatzaile

EUSKARA IKASLE

Ez zuen euskara etxean ikasteko ez entzuteko aukerarik izan. Halere, gazte-rik hasi zen euskara ikasten. Uda sasoiari Otxandiora joaten zen Lertxundi familia bere ume guztiekin, Nieves Gorostiza eta Manuel Gonzalez de Langarikaren etxera, eta hantxe izan zuen gure hizkuntzarekin lehen kontaktua.

Gainera Otxandio herri euskalduna izanik, lertxunditar gazteek kalean ikasi zuten komunikazio mailako euskara. Halere, Isabel ez zen hor geratu, hark laster ulertu zuen euskarak gure herriaren identitatean zeukan garrantzia eta bere kontu-

ra euskara ikasteari eta sakontzeari ekin zion. Bai ikasi ere.

Euskaldun berriEKIN EUSKARAZ liburuan Isabelek berak egindako adierazpenetan agertzen denez, hamaika urte zituenean hasi zen euskara ikasten Xabier Peñaren liburuarekin, baina serioa-go 17 bat urte zituenean Karmele Rotaxerekin jarraitu zuen ikasten, orduko hartan Patxi Altunaren metodoaz. Mintzatzeko moduez, Euban egindako ikastaro batean jabetu zen. Eubako ikastaro hartan Patxi Elgezabalek oso ondo irakatsi omen zion aditza. Aurrerantzean ere jarraitu zuen ikasten.

Herrizale sentitzen zelako hasi zela euskara ikasten. «Euskal Herriaren hizkuntza» zen Isabelentzat euskara.

Euskararen egoerari buruz 1975ean Isabellek zioenez «komunikabideak eskuan ez ditugularik, nahita ez, nahiko tristea da euskararen egoera». Azken bost urteetako aurrerapausoa nabaritzen zuen. Lotsa baztertu zuela jendeak uste zuen. Euskararen etorkizuna berriz, politikaren etorkizunarekin erabat loturik ikusten zuen. Euskara batua beharrezkotzat jotzen zuen, baina baliabide gutxi ikusten zituen.

DEUSTUKO PERLATXOA

Isabelek euskara ikasi ez eze, irakatsi eta bultzatu egin behar zela uste zuen eta gazterik ekin zion egiteko horri.

Deustuko Unibertsitateko (1969-1974) ikasle zela, bere antzeko kezkak zituzten ikaskide eta zenbait irakasle euskaltzaleekin batera Euskal Kultur Mintegia antolatzen jardun zuen eta gainera bertako idazkaria ere izan zen. Giro eta garai berean Andolin Eguzkitza, Joseba Agirreaz-



ISABEL LERTXUNDI BARAÑANO

Deustuko Unibertsitatean 1969.etik 1974.era estudiantutakoan artean norik ez dazau Isabel. Deustuko perlatxoa? Langile bizkorra eta euskaltzale fina, denbora horretan Euskal Kultur Mintegian hainbeste hitzaldi eta kultur saio antolatzen arduratu zen gure Isabel, jesuiten Unibertsitatean euskal oihartzunak senti eraziz. Inkesta hau, elkarrizketa gisa egingina, Basurtuko Hospitalean bete du, bihotzeko operazio baten ondoren, oraindik zuzperten ari zelarrik.

* * *

kuenaga, Gotzone Agirre, Roman Basurto, Jon Juaristi, Arene Garamendi eta beste lagun batzuekiko ezaupidea izan zuen, guztiak, zein bere arloan, hizkuntza, literatura, historia, arte edota irakaskuntzan geroago oso nabarmenduak.

Langile bizkorra eta euskaltzale fina izan zen Isabel, bere mintegi-kideek «Deustuko perlatxoa» deitzen zioten. Hainbat hitzaldi eta kultur saio antolatzearen ardur hartu zuen bere gain.

UDALEKUETAKO BEGIRALE

Udan ere ezin ezer egin barik egon eta, artean unibertsitateko ikasle zen garaian, ikastola-umeentzako antolatutako udalekuetan ibili zen, begirale edo monitorea.

Sasoi hartako ikastola arduradunak ohartu ziren haurrek ikasturtean zehar ikasten zuten euskara, udako oporretan asko galtzen zutela, eta kezkatzen hasi ziren. Irtenbideetako bat udalekuak antolatzea izango zelakoan egiteko horri ekin zioten. Jolas, kanta, ipuin, antzerki eta abar egiten ziren, euskal giro bat sortu eta euskal nortasuna lantzeko asmoz.

Argi dagoenez, udaleku haietan parte hartzen zuten antolatzailerik zein monitorea kezka nagusia, erdalduna zen giroan euskara eskolatik kanpoko harremanetan lantzea izan zen. Eta horretan saiatu ziren jo eta ke, hezkuntza ez-formalean ere euskararen presentzia bermatzen, alegia. Giro hartan, umeen izaera ere aberasten saiatzen ziren, pedagogia bide egokiak bilatuz: haurrak talde giroa onar zezan, haurrak bere irudimena ager zezan, bere iaioitasuna eta ahalmenak osa zitzaizkion.

Estibaliz Zurikaraik atsegin handiz gogoratzen ditu 1969 eta 1970eko udak. Estik eta Isabelek begirale lanean jardun zuten ikastolen elkarteak antolatutako udalekuetan boluntario gisa, Zuhatzu Koartangan lehen urtean, eta Lizarran bigarrenean. Bitartean bere bihotzeko Jesus Mari Segoviako kartzelan zegoen.

Estik «Isabel neska ausarta eta martxaduna» gogoratzen du, «adiskide mina, irribarretsua, eztabaida zalea». Garai hartan erlijioaz eta politikaz hitz egitea zuela gogoko dio. Euskal Herri eta euskal hiritar libreen aldeko apustua egin zuen. Ordu-ra arteko fedea galtzen hasia zen eta beste bide batzuk jorratzen.

GAU ESKOLAKO IRAKASLE MOTIBATZAILEA

Hirurogeigarren hamarkadan euskaltzaleon artean indar handia hartu zuen Jose Antonio Artzeren esaldi honek «euskara ez da galduko ez dakitenek ikasten ez dutelako, baizik eta dakitenek erabiltzen ez dutelako». Isabel ez zetorren Artzerekin bat. Haren aburuz behar-behar-

rezkoa zen ez zekitenei irakastea, baita betiko euskaldunak alfabetatzea, euskaldun gehienek ez baitzekiten euskaraz irakurtzen, are gutxiago idazten, hots, analfabetoak ziren euren hizkuntzan. Horrela bada, bere helburu eta teoriekin koherentea izanik, Durangaldeko Alfabetatze-Euskalduntze taldean, orduko Gau Eskola izenekoan, hasi zen euskara irakasten.

Talde hau Euskaltzaindiko Jagon sailak sustatutako alfabetatze instituzionalaren barruan kokatzen zen. Hasieran Alfabetatze mugimendu bezala hedatua baina berehala Euskalduntzearen indarra, edo beharra, gero eta handiagoa izan zenez, helduak euskalduntzeari ere ekin ziona.

Sasoi hartako gainontzekoak lez, borondatezko lana izan zen. Alfabetatze zein euskalduntze eskoletara etortzen ziren ikasleek ez zuten matrikularik ez kuotarik ordaintzen, eta irakasleek ez zuten kobratzen. Iluntzean izaten ziren eskolak, Durangoko Jesuiten ikastetxean. Garai gogorak ziren haiek euskaltzaleentzat. Sarri egoten ziren guardia zibiletako «sekretak»



Euskaldunen alfabetatzea/1 liburua

jesuiten ikastetxearen aurrean ikasle eta irakasleen sartu-irtena zaintzen. Azpimarraztekoa eta eskertzeko Jesuiten babes eta ikastetxeko gelak uzteko disposizioa.

Hasieran *Euskaldunen alfabetatzea/1* (*Itxaropena irarkorlan egiña* Zarautz 1971) liburua izan zen gau eskolan zegoen material bakarra.

Ondoren *Euskalduntzen* izeneko liburua etorri zen. Liburu hartaz baliaurik irakatsi ziren euskara hainbat durangarri Isabelek. «Barakaldotik Tuteraraino



Euskalduntzen 1 liburuaren azala

euskaraz ikasten ari direnei» eskainitako liburua zen. Aspalditik euskara irakatsi nahian zebiltzanek behar zuten liburua.

Liburuaren atzealdean honako hau zeterren:

Heuscara Bascoac oroc preciatzen
 Heuscara ez iaquin harren
 Oroc iccassiren dute
 Oray cer den heuscara.

Etxeparek (1545)

Juan Antonio Aroma, Eskarne Aroma, Jose Antonio Azkorbebeitia, Rosa Mari Arza, Marisa Barrena, Joseba Sarrionan-

dia eta euskalduntze lanetan Durangon Isabelekin zebiltzanek bazekiten hitz haiek aspaldi idatzitakoak izan arren, indarrean zirauteela euren bihotz eta gogoan bederen.

Garai latzak ziren baina irakasle eta ikasle gazte haien indarra eta grina geldiezinak ziren. Uholdea bezain indartsuak. Ilusio eta saiatzeari esker zerotik abiatu-rik euskara ikasi, lehenengo euskaldun berri estadioan izan, eta gaur egun euskaldunak dira orduko hainbat ikasle, euren artean Isabelen ikasleak.

Urte haietan bere ikasle izan zen Jose Ignacio Aramendi *Josik*, gaur egun ospetsua den doktoreak, oroitzapen ona, oso ona du; ez du gogoratzen ez urtea, ez metodoa, baina bai irakasle hura: «Isabel, zelan esan, aparta zen». Josi medikuntza ikasten ari zen orduan, fakultatean 4. maila egiten, 2 urtez ikasten jardun zuen gau eskolan, astean 3 egunez Isabelekin eta 3. urtean eskolak ematen hasi zen bera ere.

Josik dio baliabide gutxi zegoela baina gogo handia jartzen zuela Isabelek eta



Isabel Donemiliagan

gainera haren nortasunari esker ikasleen benetako partaidetza lortzeko gai izaten zela. Euskaldun berri izanik ikasleen tokian jartzen zekiela eta haiek motibatzen testuingurua ondo ulertzeko.

Isabelen ume aurpegi zurbil hark xarma berezia zuela gogoratzen du Josik. Eskolatik irten ondoren Anboto tabernan har-

tzen zuten ardotxoaz ere akordatzen da. Han ibiltzen omen zen Isabel denak zirikatzen, ikasleek euskaraz hitz egin zeza- ten motibatzen.

Josiren aburuz Isabel aitzindaria izan zen, marka eta lorratza uzten duten pertsona horietakoa. Rikardo Arregi gogorazten dio.

Baina Isabelen euskarekiko konpromisoa ez zen hor amaitu. Argi zeukan euskararen bizi iraupenean hezkuntza sistema euskalduntzeak zuen garrantzia, eta ahalgin horretan saiatu zen bere bizitzako azken egunera arte.

Isabelek oso gogoan izaten zituen Done-miliagan aurkitu zirela euskaraz idatzitako lehen berbak, hain zuzen lehen bi esaldi hauek: «Izioqui dugu» eta «Guec ajutu ez dugu». Askotan esaten zuten gizadiaren ondare izendatu beharko litzatekeela toki hura. Isabel hil ondoren, 1997an izendatu ziren Suso eta Yuso monasterioak Gizadiaren Ondare.

IRAKASLE ADORETSUA

Saiatua bezain argia. Negoziatzaile eta birtartekari aparta. Bere energia eta ilusioa inguruko guztiei kutsatzeko gauza zen Isabel.

Ikasketak amaitu eta laster, 72-73 ikasturtean Elorrioko ikastolan hasi zen lanean. Han gogoz ekin zion bere zereginari baina, ikastoletan ez eze, eskoletan ere euskara irakatsi egin behar zela uste

zuen eta oposaketak prestatzeari ekin zion, jo eta ke.

Horrela ba, hurrengo urtean, oposaketak gainditu ondoren, Durangoko Uriko Eskoletan, Pedro Arrizabalaga deituriko eskolan lortu zuen plaza. Plaza lortzea osteraz ez zen nahikoa izan langile nekaezin eta saiatu harrentzat. 73-74 ikasturtean eta hurrengoan ere eskolaz kanpoko orduetan euskara ikastaroak eman zituen Durangoko institutuan bertako ikasleentzat, besteak beste, Arantza Santa María-Amurrio eta Miren Sarrionandia bere lankideekin batera.

Eskolan berriz, urte bete nahikoa izan zuen Isabel gazteak bere lankideen mirespena eta errespetua eskuratu eta eskolako zuzendari izatera heltzeko, demokratikoki, klaustroek aukeratuta, ordura arteko Don Marino Lopez zuzendariaren lekua hartuz.

Hiru urtez egon zen zuzendari lanetan Pedro Arrizabalaga eskolan, hiru urteetan Joaquín Rueda zuzendariorde zuela. Edertotxo gogoratzen du Ruedak Isabel. Don Marinoren despedidan Isabelek egindako diskurtsoak txunditurik utzi

omen zituen klaustrokide guztiak, baita Don Marino bera ere.

Isabel laster konturatu zen eskola publiko hark zituen eraikuntza aldetiko akatsez eta gogor ekin zion lanari. Zoritxarrez ez zen hura Durangok eskola arloan zuen arazo bakarra. Eraikuntza aldetiko gabeziez gain eskolak han-hor-hemen sakabaturik zeuden. Isabelen ekimenari esker, gerora Landakon eraiki zen eskolari bultzada eman zitzaion. Gainera, herri mailan Hezkuntza Berezia ziharduten umeez arduratu egin zen eta haientzat ere irtenbidea bilatzen ahalegin handia egin zuen. Hezkuntza Bereziak asko zor dio Isabeli.

Marce Hernandezen esanetan 70eko hamarkadan aktiboa eta sortzaile izan zen Isabel berrikuntza pedagogikoaren arloan, espiritu berritzaile hori berak eragina zuen eremu guztietara eramaten saiatuz. Unean uneko heziketa arloko berrikuntzekin harremanetan egon zen baita alor honetan buru-belarri zebiltzan profesionalekin ere. Ikastola mugimenduaren barruan sortzen ziren kolektiborik aktiboenak ezagutu eta euren ekimenean parte hartzen zuen. Herri mailan

berriz, Durangoko Jesuiten ikastetxean zebilen ekipoko proposamenetan, gerora Amara Berri sistema izenez ezagutzen denean ere, bere partaidetza izan zuen.

Era berean Rosa Sensat izeneko pedagogia berritzaile mugimenduak antolatuta urtero Bartzelonan egiten ziren pedagogia taldeen bileretatik zetozen ideia freskoak eta zeharo berritzaileekin bat egiten zuen eta zabalkundea ematen saiatzen zen bere inguruko artean.

IKUSKARI HURBILA

78-79 ikasturtean Isabel inspektore edo ikuskari hasi zen Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzan etapa berri bati hasiera emanez. Aspalditik buruan zerabiltzan hainbat asmo bultzatzeko eta burutzeko aukera izango zuen aurrerantzean. Garai hartako gainontzekoak bezala, meritu lehiaketa bidez lortu plaza. Pedagogian lizentziatuak eskatzen ziren lan hartarako, Isabel ordean Historian lizentziatua zenez, Bartzelonara joan zen gaur egungo CAParen antzeko ikastaro bat egitera bere lanbide berriari ekin aurretik.

Begoña Alberdi bere lankidearekin batera joan zen Isabel Bartzelonara. 1979ko urtarrila zela uste du Begoñak Bartzelonara ikastaroa egitera joan ziren sasoiak. Trenez joan ziren eta bi astez egon ziren ikastaroan. Pedagogiaz gain, bide batez, ordurako hango behin-behineko Generalitat erakundeak elebitasunaz antolatuta zuenetik ere ikasi zuten. Izan ere, kataluniarrak aurretik zihoazen eta bazegoen zer ikasi. Zorionez behin-behineko Generalitateko atak zabalik aurkitu zituzten eta paperez eta ilusioz beteta itzuli ziren. Geroago, urte berean argitaratu zen eta eskoletan euskara irakastea baimentzen zuen Elebitasun Dekretua martxan jartzeko, hemengo hezkuntza sisteman erabiliko zituzten hainbat material eta ideia ekarri zuten Kataluniatik

Une berezia zen Euskal Herriak eta Hezkuntza Sistemak bizi zutena. Sortu berria zen Eusko Kontseilu Nagusian Carlos Santamaria zen Hezkuntza sailburua. Bere esanetara, besteak beste, Mari Karmen Alzueta donostiarra lehen momentutik buru-belarri murgildu zen Hezkuntza Saila antolatzen. 1978-79 ikasturte

horretan Eusko Kontseilu Nagusiak mai-su-maistrak euskaldundu beharra ikusten du sare publikoan lan egiten zutenen arteko kopuru oso txiki batek baino ez baitzekien euskaraz. Erabat erdalduna zen eskola publikoa euskalduntzeko liburuak, materiala eta batez ere irakasle euskaldunak behar zirela alegia. Hortaz, lehenengo eta behin eskoletako irakasle haiek euskalduntzeko erak aztertzen hasi ziren. Ez zen une samurra. Euskararen Legea oraindik onartu barik zegoen eta hezkuntza arloan agintean zeuden hainbat eta hainbat ez ziren euskararen aldekoak. Oztopoak nonahi.

Egoera hartan pertsona ausartak behar ziren aurrera egiteko. Bizkaiko ordezkarriz garrantzitsua izan zen Isabel bezalako pertsona aktibo, ireki eta berriztatzailearen eragina, gainera Eusko Kontseiluko Mari Karmen eta Isabelek ez zuten denbora askorik behar izan euren artean amaraun fina ehuntzeko. Emakume haiek barruan zeramaten motoreak geldiezinak ziren eta bien artean zegoen sintonia ezin hobea islatu egiten zen hezkuntza esparruan lan egiten zuten euskaltzaileen artean.

Argi zegoen Bizkaiko antolaketaren ar-
dura nagusia noren bizkar egongo zen.
Isabel talde lanaren aldeko zenez gero,
eta pertsonen balioan sinisten zuenez,
ezer baino lehen euskaltzaleak ziren eta
euskara ondo menperatzen zuten behar-
ginez inguratu zen Hezkuntza Ordezka-
ritzan. Alfabetatze-euskalduntze mun-
dutik zetozen Juan Felix Atxirika, Jabi
Etxegarai eta Kolesti Agirresarobe hi-
rukotearen esku egon zen lehen etapan
irakasle euskaldunen formazioa. Haien
ardurapean zegoen irakasleen euskal-
duntzea bideratzea. Horretarako klase
orduetatik kanpoko ikastaroak antola-
tzen hasi ziren, urtean zehar, zein udan.
Horrez gain, eskoletako «irakasle ido-
neo» deitzen zirenentzako azterketak di-
seinatzea, aztertzaileak bilatzea eta beste
hainbat zeregin ere hirukote haren esku
egon zen.

Esan daiteke urrats haiekin militantziazatik
profesionaltasunerako bidea ireki zuela
Isabelek. Esaterako, gero IRALE izango
zenaren hazia orduan hasi ziren ereiten.

Lan honetan ibilitako Kolestik «berezia,
bizia, baikorra, apartekoa» hitzak erabil-



Isabel eta Joaquin eskolako zuzendaritzan zeudela Durangoko
kaleetan zehar herri lasterketan parte hartzen

tzen ditu Isabel deskribatzeko: «irakas-
le guztiak ezagutzen zituen, eskola ondo
ezagutzen zuen, detaile guztiak ezagu-
tzen zituen, bide asko ireki zituen, beti
aurkitzen zuen bideren bat, irtenbide
duin bat, zehatza, praktikoa, alferreko
lan gutxi egiten zuen pertsona. Bizkaiko
Hezkuntza sailean aurrerapauso handia
eman zen garai hartan eta Isabel izan zen
giltza. Ikuskari buru jarri zenean zeharo
aldatu zuen ordura arteko giroa. Pertso-
na hurbil eta besteen zerbitzuan egoten

zekiena; guraso, irakasle» jarraitzen du. Antzinako kontuez ari den arren, Kolesti emozionatu egiten da emakume haren akorduaz.

Bizkaiko Ikastolen Elkartearekin ere Isabellek harreman estua izan zuen hasiera-hasieratik. Ordura arteko ikuskariekin zaila zen tratatzea ikastoletakoentzat, Isabelekin ostera, beste aro bati hasiera eman zitzaiola esan genezake. Ikuskaritzan pertsona ireki eta euskaltzale bat aurkitzea arnasa hartzea izan zen une haietan estu eta larri zebiltzan ikastola askorentzat eta batez ere BIEko kudeatzaileentzat. Eusko Jaurlaritza artean sortu barik zegoen. Ikastolen tramite asko, diru laguntzak, kredituak etab. Madrilen kudeatzen ziren, beti ere Hezkuntza Ordezkaritzatik pasatu ondoren.

Luzaro gabe ordea, 1980. urtean Eusko Jaurlaritza sortu zen. Orduko hartan Pedro Miguel Etxenike izen zen Hezkuntza sailburua. Aurreko urteetan emandako pausoak finkatzen ari ziren. Mari Karmenek eta Isabellek zein euren taldekideek sasoi hartan ere Santamariarekin hasitako bide eraikitzaileari jarraitu zioten.

Garai hartan Eskola Publiko-Pribatu eztabaida ere piztu zen ikastolen artean. Ikastola batzuek publiko izateko bokatzea zutela zioten. Beste batzuk ordea, argi zegoen pribatutasunaren aldeko zirela. Isabel eskola publikoaren aldekoa zen. Bere hautua egina zuen. Ez zen Hezkuntza sistema antolatzen ari zirenen artean jarrera hori zuen bakarra. Eusko Jaurlaritzako Mari Karmen Alzuetak ere publikotasunaren testuinguruan kokatzen zuen ikastolaren etorkizuna.

Esan bezala, Isabelen helburua eta jomuga eskola publikoak euskalduntzea zen, haren ustez ordurako ikastoletan emana baitzuten pausoa. Bide horretatik bada 80ko hamarkadan, bera bizi zen eskualdeko zenbait ikastolari eskola publiko bihurtzeko aukera eskaini zien. Ordura arteko eskubideak galdu barik eta baldintza duinagoetan lan eginez. Ikastola haietako gurasoek hainbat gogoeta eta eztabaidaren ondoren pausoa ematea erabaki zuten eta horrela ikastola haiek eskola publiko bihurtu ziren, eskola publiko euskaldun. Lehen urratsa emana zegoen. Aurrerantzean Durangal-

deko Zaldibar, Iurreta eta Matiena-Abadiñoiko ikastolak, hain zuzen eskola publikoak izango ziren. D eredia izango zena landatua zegoen eta lur emankorrean gainera.

Beste hainbat ikastolak ere antzerako urratsak eman zituzten, haien artean. Portugaleteko Herrikoa ikastolak ere saio berean eman zuen eskola euskaldun bihurtzeko pausoa. Bide beretik jarraitu zuten Gorliz, Mundaka, Arratia, Etorkizuna (Abanto), Mendialde (Santurtzi), Alkartu (Barakaldo) eta Simondrogas (Sestao) ikastolek ere.

Arratia ikastolaren legalizazio prozesua ere gogoan du Mari Eli Olabarrik. Haren esanetan, nekez ahaztuko ditu Isabelen bulegoan sentitu zuen Administrazioaren aldetiko disposizioa, hizkuntza berbera erabiltzea, emakume haren ulertzeko ahalmena zein haren hurbiltasuna. Ikuskari harekin Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritza beste aro batean sartu zela dio.

Dohain asko aipatzen dituzte bere lankide izandakoek; berritzailea, erronka zale eta abar luzea. Sukarrietako Basetxe Es-

kolaren bultzatzailea izan zela ere gogoan dute. Besteak beste, bere ahaleginari esker, 1982ko urriaren 29an Eusko Jaur-laritzaren eta orduko Bilboko Aurrezki Kutxaren artean hitzarmen bat sinatu zen eta Sukarrietako eskola-esperimentazioko zentroa sortu. Zentro edo leku hau Euskadin aitzindaria izan da gune fisiko eta pedagogiko bat eskaintzen eskola umeak naturara hurbil daitezzen. Hainbat sari ere jaso ditu, bertan zein nazioartean.

1984ko irailaren 1eko Ebazpenak luzatu egiten zion bere agintealdia Isabeli: «Hezkuntza-Sailordetzaren 1984.eko Irailaren 1eko ERABAKIA, aipatzen diren Oinarriko Hezkuntzako Berariazko Ikuskarrien aginte-aldia luzatuz». Luzapen hark ordea, egun gutxi iraun zion, urte bereko irailaren 28an hil zen-eta.

KONPROMISOA

Euskararekin ez eze, Isabel bestelako konpromisoetan ere murgildu izan zen. Etxe oneko alaba izan arren, berdintasunaren eta justizia sozialaren aldeko apustu eta borroka gogorra egin zuen. 1975ean,



Isabel Durangaldeko herri hautetsi alderdikideekin,
Gerediagako Batzar nagusien egoitzan

Franco hil eta egun batzuetara atxilotu egin zuten berarekin amnistiaren aldeko panfletoak banatzen ari zen Ana Agirre durangarrarekin batera. Hogeitaka egun igaro zituzten Basauriko espetxean, eta haietako hiru egun prostituta batekin batera egon ziren gelan. Egoera hari ere etekina atera zion Isabelek. Prostitutaren bizimoduaz jakitea ere aberasgarria suertatu eta kurioa iruditu zitzaion. Gizarteak prostitutekin kitatu beharreko zorra aipatuko zuen behin baino gehiagotan.

PCE-EPK alderdiko militantea izan zen, baita burukidea ere. Alderdiaren euska-

razko izena ere, *EPK*, bere proposamena izan zela dio Roberto bere nebak. Bere alderdiak 1979an, Isabel Bizkaiko Batzar Nagusietako zerrenda-buru aurkeztu zuen Durangaldetik eta batzarkide hautatu zuten. Hainbat bider hartu zuen hitza Gernikan proposamenak egiteko eta bere alderdiaren ezkerreko jarrerak defendatzeko. Beti berdintasunaren aldeko defentsan, beti aukera gutxien zutenen alde. Euskararen aldeko jarrera ere tinko defendatu zuen lehenengo egunetik beretik.

Bizkaiko Batzar Nagusietan lehen agintaldi horretan, 90 ahaldun ziren guztira, 86 gizonezko eta 4 emakume. 1979ko apirilaren 28an Gernikako Juntetxean, hirugarren eskualdetik, Durangotik, hartu zuen bere ahaldun kargua.

Honela dio egun hartako agiriak: Ahaldun Nagusiak Isabeli ematen dio hitza. Bilerako akta guztia erdara hutsean dago baina Isabelek bi hizkuntzak erabili zituela aipatzen da aktan: «A continuación la Sra. Lertxundi en euzkera y castellano dice lo siguiente: “Zorionak Aldun Nagusiari,...momentu historikoaren garran-

tzitsua..., barne araudia demokratikoa eta irekia egitearen beharra... eta Picasoren Gernika Gernikan jartzea. Gernika Gernikara”».


Aipagarriena agian 1979ko maiatzaren 22an, Isabel Lertxundik berreuskalduntzeari buruz aurkeztutako mozioa: «Euskadin benetako elebitasuna lortzeko helburuaz, bertako herritarrak gazteleraz zein euskaraz komunikatzeko aukera izan dezaten, inor hizkuntza dela-eta diskriminatua izan ez dadin, Bizkaiko Jaurerriko Batzar nagusi hauek Euskara berreskuratzeke ahalegin osoa agertzen dute eta horretarako honakoak eskatzen dizkiete eskudun agintariei:

a) Onartu berri den Elebitasun Dekretua praktikan jartzea, horretarako irakasleen formazioa sustatuz.


b) Helduen formazio eta alfabetatzeari arreta etengabea».

Ordura arteko Batzar Nagusietako agiri guztiak gaztelera hutsean daude. Egunduan hartu zen erabakiak osteratzen aldatu egin zuen panorama. Hona hemen Isabelen proposamena: «une honetatik aurrera

Batzar Nagusi hauek Euskara eta Gaztelania erabiltzea onartzen dute; bileretan, agiritan, zirkularretan, etab. Era berean elebitasunak eragina eta eskumena duen



Batzar Nagusietako aktaren zatia



Batzar Nagusietako aktaren zatia

eremu guztian gauzatzeko konpromisoa hartzen dute».

Batzarkide zen garai hartan Bilboko Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorio-ko Patronatuko kide ere izan zen. Han ere utzi zuen bere ukitua. Jose Maria Ma-kuak, orduko Ahaldun Nagusiak, Isabelen hileta egunean esan zuen Bizkaiak nabaritutako zuela emakume txiki-handi haren hutsunea.

1981-82. Euskararen Legea aurrera ateratzeko arazoak zeudela gogoratzen du Jose Luis Lizundiak: «Alderdien arteko

akordioa lortzea zaila gertatzen zen eta une batean aurrerabiderik gabe zegoen, harik eta Roberto Lertxundik, Isabelen aholkuak eta iradokizunak jarraituta Lege Proposamen bat egin eta egoera desblo-keatu zuen arte». Isabelen negoziatzeko ahalmena eta bideak leuntzeko gaitasuna argi geratu zen zalantza barik. Euskara Legeari ere egin zion bere bultzada.

Honela jarraitzen du Lizundia euskaltzai-
nak: «Euskararen legea oso eztabaida-
tuak izan diren zenbait gairen abiapuntu
izan zen, hauen artean funtzionarien eus-
kalduntzea. Funtzionarien euskalduntze
lanean oso gogor aritu ziren gaur hilda
dauden hiru pertsona: Koldo Mitxelena,
Fernando Buesa eta Isabel Lertxundi».

Durangaldean garai hartan hain garran-
tzitsua zen Gerediaga elkartean ere utzi
zuen bere azterna. 1979an Gerediagak
antolatutako saioetan parte hartu zuen.

1983an Durangoko Udal hauteskundeta-
ko Euskadiko Ezkerrako zerrendan ere
hautagai izan zen. Orduko hartan zerren-
da betetzeko, baina bere konpromisoa
argi utziz.



Isabel berbetan, Astolako Gerediaga elkartearen egoitzan.
Jesarrita Basilio Arana, Balendin Lasuen, Jose Luis Lizundia,
Sabin Goikoelea (Gerediako presidentea) eta Agustin Aranberria



Isabelen aitaren argazki albumean honakoa dio: «última foto de Isabel». Argazki hau hil zen aurreko asteburuan egindakoa da Otxandio inguruan. Perretxikotan joan zen bere seme Iker, alaba Jone, aita Roberto eta argazkia egin zuen bere senarrarekin

BERDINTASUN ZALE

Gizon eta emakumeen eskubide berdintasunaren aldekoa izan zen inor izatekoan. Martxoaren 8an jaiotakoa izateak nolabaiteko erantzukizuna ezartzen zion emakume langileenganako, antza.

Feminista berezia izan zen ordea. Ez zeterren bat bere gaztaroko zenbait talde feministaren aldarriekin. Halere, haiek herri

mailan antolatutako ekitaldi eta hitzaldietan parte hartzeari ez zion inoiz uko egingen Puri Sarrionandiaren esanetan.

Ez zen emakumeentzako kupo zalea. Bere ustez emakumeek nahiko ahalmen eta gaitasunen jabe ziren nahi zuten tokira heltzeko, borondatea izanez gero. Bere kasuan, egia esan, horrela izan zen. Hark ez zuen kuotarik behar izan helburua erdiesteko.



Heriotza goiztiarra

«**B**ihar goizean deituko deutsut, bihar arte.» Hauek izan ziren Isabelek irailaren 28 hartan esan zizkidan azken berbak. Napazko jaka grisa zera-man soinean goiz hartan, agian berak zeukan jantzirik dotoreena. San Migelak ziren eta hurrengo egunean elkarrekin egote-koak ginen, gure alaben baserritar arropak trukatzeko. Bere deiaren zain nengoela ostera, irratian Isabel eta Aldairen heriotzaren berri eman zuten.

Zaila da galera hura zer izan zen azaltzea. Isabel ezagutu ez duenak, nekez jakin dezake bera galtzea zer den. Ezagutzeko zortea izan dugunok ostera, ezingo dugu inoiz bere hutsunea bete.

Ez da deus hiltzen, hil. Horrela idatzi zuen Joseba Sarrionandia gau-eskola kideak 1982an, handik bi urtera joan zitzaizkigun Isabel eta Aldai. *Ez da deus hiltzen, hil.* Haiek ere gure oroimenean egongo dira betiko. Ezinezkoa baita pertsona hain hunkigarriak ahaztea. Ezinezkoa bikote hain berezia ahaztea. Horregatik haiek istripua izan eta urtebetera, haien adiskide eta lagunak ipuin lehiaketa bat antolatu genuen.

IPUIN LEHIAKETA, ISABEL ETA ALDAIREN OROIMENEZ

Isabel eta Aldairen oroimen eta omenez ipuin lehiaketa bat antolatu genuen euren adiskide eta zenbait lagunek. Lehia-

CARLOS SANTAMARIA ANSA Donostia, 85. 8. Irailak 1
Isabel Lertxundi eta Jesus Mari
Aldai izan zirenen adiskideei
Agur!
Psikotik ez erkeratzen dizuet zuen
Ustailak 1 eguneko eskutitza.
Ni ez naiz nor lehiaketa horretan
parte hartzeko baina Isabel lan-

gile nekagaritza saiatu eta erli-
matzen nuen aldetik, oroimen
honenagatik porten naiz. Beste
adiskideei jakin araziko diet.
Nere nahirik menekizu
Karlos Santamaria

Carlos Santamariak ipuin lehiaketa antolatzaileei bidalitako berbak

ketan saria eta gainontzeko gastuei aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Durangoko Udalari eskatu genien laguntza eta bai lortu ere. Bikote hark utzitako lorrazak hantxe zirauen.


Ipuin lehiaketan partaidetza duin bat lortzeko hainbat ahalegin egin genuen, gure taldea ez baitzen ezaguna, bai ordea Isabel.

Jose Ramon Beloki donostiarrak jaso zuen lehen saria *Sentiberakeriaz inozo bat, agian* ipuinaz. Beste 10 aipamen ere egon ziren; Xabier Kintana, Iñaki Auzmendi, Bittor Kapanaga, Xipri Arbelbide, Joxe Austin

Arrieta, Federiko Krutwig, Mariano Ize-
ta, Patxi Iturregi eta Xabier Mendigure-
nen lanak, hain zuzen.

Guztira 34 narrazio labur aurkeztu ziren lehiaketara. Epaimahaia Alfonso Irigoie-
nek (Euskaltzaindiaren izenean), Patxi
Uribarrenek (Bizkaiko Foru Aldundiaren
ordezkari legez) eta Manu Erzillak (Eus-
kal Idazleen Elkartearen izenean) osatu
zuten, Marisa Barrena antolatzaileen ize-
nean idazkari izan zelarik.

Carlos Santamaria Ansa jauna ere gonbi-
datua izan zen lehiaketan parte hartzera,
baina eskerrak eman ez lerro batzuk bida-
li zizkien antolatzaileei «Isabel langile ne-



Lehiaketan saritutako ipuinak biltzen dituen liburua



Afariko gonbidapen-txartela

kaezina ezagutu eta estimatzen nuen aldetik» zioen Santamaria jaunak

Lehiaketan saritutako ipuinak argitaratu egin ziren.

Sari banaketa egunean Isabel eta Aldairen hainbat lagun bildu ziren elkarrekin afaltzen.

Urteetan izan naiz agindu zenidan dei haren zain Isabel. Jakin banekien ezinezkoa zela berriro zure ahotsa entzutea eta zure energia kutsatzailea sentitzea, hala ere, egun hauetan lerro hauek idazteko zure lankide, ikasle, lagun eta adiskideekin hitz egin dudanean, nolabait, hurbil sen-

titu zaitut berriro ere. Aspaldi utzi gintuzun arren, hurbil sentitzen zaitugu denok oraindik.

Geroak esan beza «Isabel izeneko emakume argi, saiatu, ona eta bihotz handiko bat bizi izan zen behin gure herrian, haren ondoan eta aldamenean, gaztetxotatik maite izan zuen Jesus Mari izan zuelarik».

Lerro hauek Iker eta Joneri eskainita daude, Isabel eta Jesus Mariren seme-alabei, haiekin urte gutxitan bizitzeko aukera izan bazuten ere, hain guraso apartak izateko zoria izan zutelako.

Agur Isabel, ez adiorik.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Carmen Barañanori
- Juan Aldairi
- Arantza Santa María-Amurriori
- Estibaliz Zurikarairi
- Ixone Aromari
- Jose Ignacio Aramendiri
- Koldo Goikoleari
- Marce Hernandezi
- Mertxe Hidalgori
- Miren Sarrionandiarri
- Roberto Lertxundiri
- Ana Agirreri
- Bego Alberdiri
- Garbiñe Gorrotxategiri
- Joaquín Ruedari
- Jose Luis Lizundiari
- Kolesti Agirresaroberi
- Mari Eli Olabarriri
- Mila Aranbururi
- Puri Sarrionandiarri

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2009ko azaroa

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Cervantes etorb., 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)

ISBN: 978-84-457-2995-3 (Lan osoarena)
978-84-457-2999-1

L.G.: BI - 2783-09

BIDOGUILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco